


Hirigintza lanak Amara Zaharrean

Gabonen ondoren Amara Zaharreko berri-tze lanak hasiko dira, Maria Jose Usandizaga Hirigintza Disziplina zinegotziak adierazi duenez. Lanok ez daude lotuta San Bartolomeko proiektuak kaltetutako etxeetan egiten ari diren berrikuntzekin. Guztira, 230 milioi pezeta bideratuko dira eta besteak beste, espaloiak zabaldu eta argiztapena hobetuko da.



Intxaurrendoko "lubakia"



Udala Zubiaurre pasealekuko trenbidea estaltzeko prest dago, baldin eta proiektuak Renferen eta beste zenbait erakunderen laguntza ekonomikoa badu. Odon Elorza alkateak dioenez, Renfek hirian 2.500 milioi pezetako inbertsioa egiteko konpromisoa hartu zuen, Frantziako pasealekuan etxeak eraikitzeko baimenaren truke, eta oraindik mila milioi inguru inbertitu behar ditu. Beraz, dirutza hau Intxaurrendora bidera lezake. Intxaurrendoko "lubakia" estaltzeko aurrekontua 1.900 milioikoa litzateke.

Zorionak Jesus!

Joan den larunbatean Realak 2-1 irabazi zion Osasunari. IRUTXULOren porran, bost tabernek asmatu zuen emaitza: Rex, Antxuene, Bodega Donostiarra, El Museo del Whisky eta La Espiga. Zozketan, La Espigari egokitu zaio saria, bi lagunentzako afaria Casa Nicolasa jatetxean. Argazkian, La Espigako Jesus Castro dugu, Ernesto Ibarluzea IRUTXULOko publizitate saileko langilearekin.



azaroaren
2an
kalean

Eros
ezazu
kioskoan!

- Unax Ugalderekin solasean
- Irainez eta umoreaz hamaika kontu
 - Lau Itzal
- Antimilitarismoak borrokari eutsi
 - Masturbazioa, bakarkako jolasa

